

# egitaraua

Arartekoaren jardunaldiak  
Maiatzak 19 / 20 / 21 / 22  
Euskalduna Jauregia / Bilbo

**politika publikoen** erronkak  
demokrazia aurreratu batean

**aRarteko**

Herriaren Defendatzailea  
Defensoría del Pueblo

**20**  
urte años

Zurutzat lanean  
Trabajando para ti



[www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)

#### **ANTOLATZAILEA**

Arartekoa, Euskadiko Herriaren Defendatzailea


#### **LAGUNTZAILEAK**

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Zuzenbide Konstituzionalaren eta Pentsamenduaren eta Mugimendu Sozial eta Politikoen Historiaren Saila

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren, Nazioarteko Harremanen eta Zuzenbidearen Historiaren Saila

#### **IDAZKARITZA TEKNIKOA**

PREST! ■ ekitaldiak



**a** arartekoak 20 urte bete ditu. Hogei urte joan dira Euskadiko Herriaren Defendatzailea abian jarri zenetik, euskal administrazioen jarduera eta politika publikoen aurrean pertsonen eskubideak babesteko asmoz. Denbora honetan zehar herritarren milaka kontsultari eta kexari erantzun diegu; gizarte-erakundeekin batera errealitate soziala etengabe aztertu dugu, eta politika publikoak ebaluatu ditugu, premia sozialei egoki erantzun diezaieten, egunera daitezen, eta gizartearen garapenak sortzen dituen erronka berrien arabera hobetu daitezten.

*Urtemugaren harira, Ararteko erakundeak hausnarketa- eta eztabaida-gune bat antolatu du. Adituek, administrazio publikoko eta erakunde sozialetako arduradunek hainbat arlotan politika publikoen berehalako erronkez hitz egitea nahi dugu. Pertsonen eskubideei hobeto erantzuteko, eta eskubideok hobeto babestuta egon daitezen, demokrazia aurreratu batera eramango gaituen bidean aurrera egin dezagun, gizon eta emakume guztion artean mundu zuzenagoa eta bidezkoagoa egin dezagun, nondik jo behar dugun jakin nahi dugu.*

*Jardunaldietan parte har dezazun nahi genuke, eta ahalik eta jende gehienari beronen berri eman diezaiozun. Egitaraua zabala eta anitza da. Hitzaldi guztietan egoterik ez baduzu edo nahi ez baduzu, gustukoena dituzunetan baino ez egoteko aukera duzu. Izena emateko orria betetzea eskertuko genizuke, honela jardunaldien kudeaketa erraztuko zeniguke eta.*

*Jaso ezazu gure agur bero eta zintzoa.*

**Iñigo Lamarca Iturbe**  
**ARARTEKOA**



- 08:30 - 09:00 Akreditazioak eta dokumentazioa ematea
- 09:00 - 09:30 Hasiera ekitaldia
- 09:30 - 10:30 **Politika publikoak, immigrazioa, asiloa**  
**Javier de Lucas.** *Valentziako Unibertsitateko Zuzenbidearen Filosofiako katedraduna. CEAREko (Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea) lehendakaria*
- 10:30 - 11:30 **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: erdizka egindako ibilbidea**  
**María Jesús Aranda.** *Berdintasun gaietarako Iberoamerikako Idazkaritza Orokorreko (SEGIB) aholkularia. Nafarroako ararteko ohia*
- 11:30 - 12:00 Kafe atsedenaldia
- 12:00 - 13:00 **Arrazoi publikoaren ikuspegi berriak osasunaren zaintzan**  
**Carlos Ponte.** *Asturiaseko Ospitale Nagusiko sendagilea. Osasun Publikoa Defendatzeko Elkarteen Federazioko presidentea*
- 13:00 - 14:00 **Bioetika: zer eta zertan den**  
**Koldo Martínez.** *Nafarroako Ospitaleko sendagile intentsibista. Bioetika Fundamentalaren eta Klinikoaren Elkarteko lehendakariordea*
- 16:30 - 19:30 **Hezkuntzarako eskubidearekin lotutako politika publikoak**
- 16:30 **Hezkuntzarako eskubidea: ikuspegi orokorra eta gaur-gaurkoa**  
**Xavier Bonal.** *Kataluniako Sindic de Greugeseko haurren eskubideen defentsarako ondokoa. UNESCOko (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) kontsultore ohia*
- 17:00 **Mahai-ingurua: Lau erronka gure hezkuntza sistemarentzat**
- **Hezkuntza inklusiboa**  
**Rafa Mendia.** *Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko hezkuntza bereziko programaren arduraduna hainbat gaitan*
  - **Bizikidetasuna**  
**Neli Zaitegi.** *Azken urteotan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko zentroetako bizikidetasun programen arduraduna*
  - **Balioak-teknologia berriak**  
**Felix Etxeberria.** *Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Pedagogia irakaslea*
  - **Kalitatea-ekitatea**  
**Francisco Luna.** *ISEI-IVElko (Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Euskal Erakundea) didaktika taldeko arduraduna*
- 19:30 Jardunaldiaren bukaera



- 09:30 - 10:30 **Mendekotasuna duten pertsonen autonomia eta bizi kalitatea hobetzeko estrategiak**  
**Miguel Ángel Verdugo.** *Salamanca*ko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko Ezintasunaren Psikologiako katedraduna eta Gizarteratzearen Unibertsitate Erakundeko (INICO) zuzendaria
- 10:30 - 11:30 **Giza eskubideak nazioartean babesteko sistemak**  
**Federico Mayor Zaragoza.** *Bake* Kulturarako Fundazioko lehendakaria. UNESCOko (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) zuzendari nagusi ohia
- 11:30 - 12:00 Kafe atsedenaldia
- 12:00 - 13:00 **Haur eta nerabeei buruzko politika publikoak**  
**José Chamizo.** *Andaluziako herriaren defendatzailea eta adingabeen defendatzailea*
- 13:00 - 14:00 **Administrazio ona edukitzeko eskubidea, gobernatzearen eta hiritargo berriaren ikuspegitik**  
**Joan Prats.** *Gobernagarritasunaren Nazioarteko Erakundearen* zuzendaria. *Kataluniako Unibertsitat Obertako katedraduna*
- 16:30 - 19:30 **Herritarren sektore zehatzekin lotutako politika publikoak**
- **Adinekoak**  
**Patxi Leturia.** *Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zuzendariorde teknikoa*
  - **Ezinduek**  
**Juan Carlos Sola.** *FEKOOREko (Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailea) ordezkaria*
  - **Buru-gaixoak**  
**Itziar Ceballos.** *AVIFESeko (Buruko Gaixotasuna duten Pertsonen eta Senitartekoen Bizkaiko Elkartea) ordezkaria*
  - **Espetxeratuta eta gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak**  
**Heraclio Varona.** *Bidesariko -espetxeetako Pastoral- ordezkaria*
  - **Ijitoak**  
**Carmen Jiménez.** *Ijitoen Ekimenako ordezkaria*
- 19:30 Jardunaldiaren bukaera



- 09:30 - 10:30 **Estatu sozialaren iraunkortasun erronkak**  
**Vicenç Navarro.** *Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko Politika eta Gizarte Zientzietako katedraduna. Espainiako Gizarte Behatoki zuzendaria*
- 10:30 - 11:30 **Justizia modernoa eskubideen berme gisa**  
**M<sup>a</sup> Victoria Cinto.** *Magistratua. Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko lehendakaria*
- 11:30 - 12:00 Kafe atsedenaldia
- 12:00 - 13:00 **Eskubideen defentsarako erakunde eta organismoen eginkizuna**  
**Manuel Lezertua.** *Europako Kontseiluko Unitateko burua. Giza Eskubideen Europako Komisariako zuzendari ohia*
- 13:00 - 14:00 **Askatasuna kendu dieten pertsonen osotasun fisiko eta moralaren babesa**  
**Mauro Palma.** *Tortura Saihesteko Europako Kontseiluko lehendakaria*
- 16:30 - 17:30 **Berdintasunaren dimentsio berria: homosexualen eta transexualen berdintasuna eta bereizkeriarik eza**  
**Beatriz Gimeno.** *Idazlea. Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Estatuko Federazioko (FELGTB) lehendakari ohia*
- 17:30 - 18:30 **Pertsonen eskubideak eta ICTak (informazio eta komunikazio teknologiak)**  
**Jordi Barrat.** *Alacanteko Unibertsitateko Zuzenbide Konstituzionaleko irakaslea. Bozketa Elektronikoaren Behatokiaren (OVE) fundatzailea*
- 18:30 Jardunaldiaren bukaera



- 09:30 - 10:30 **Etxebizitza duina edukitzeko eskubidea bermatzeko politika publiko eraginkorrak**  
**Gerardo Pisarello.** *Bartzelonako Unibertsitate Zentraleko Zuzenbide Konstituzionaleko irakaslea*
- 10:30 - 11:30 **Bi hizkuntza ofizial (edo gehiago) dituzten autonomia erkidegoetako hizkuntza eskubideak**  
**Jordi Argelaguet.** *Bartzelonako Unibersitat Autònomako Zientzia Politikoko irakasle titularra*
- 11:30 - 12:00 Kafe atsedenaldia
- 12:00 - 13:00 **Norbanakoaren eta familia bizitzarekin bateragarria den lan duina edukitzeko eskubidea**  
**Henar Merino.** *Lan arloko magistratua. Madrilgo Carlos III.a Unibertsitateko Laneko Zuzenbideko irakaslea, eszedentzian. Gaztela-Mantxako herriaren defendatzaile ohia*
- 13:00 - 14:00 **Giza eskubideei buruzko Europako Hitzarmena: erakundeen, arauen eta prebentzioaren ikuspuntutik**  
**José Antonio Pastor Ridruejo.** *Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Nazioarteko Zuzenbideko katedradun emeritua. Giza Eskubideen Europako Auzitegiko epaile ohia*
- 14:00 - 14:30 Itxiera ekitaldia

## informazio orokorra

- Datak: maiatzaren 19tik 22ra
- Lekua: Euskalduna Jauregia, E Aretoa (kanpoko sarrera)
- Izena emateko epea: maiatzaren 15era arte egongo da zabalik
- Izena ematea doan izango da
- Izena emateak honako eskubide hauek ematen ditu:
  - Hitzaldi eta mahai-inguruetara joatea
  - Dokumentazioa
  - *Coffee-break*-ak
- Gaztelaniarako itzulpen zerbitzua eskainiko da euskaraz edo beste hizkuntzaren batean egiten diren hitzaldietan
- Zeinu-mintzairaren interpretea behar baduzu, adieraz ezazu izena emateko orrian
- Jardunaldietan izena emateko, bete orri hau hizki larriez eta igorri faxez:

Idazkaritza Teknikoa  
Faxa: 944 022 995

Edota posta helbide honetara:  
PREST ekitaldiak  
Errebitarte 7, 1. (6. departamentua)  
48930 Getxo

Edota igorri posta elektronikoa bat zeure datuekin:  
[ararteko@presteventos.com](mailto:ararteko@presteventos.com) helbidera

- Oharrak:
  - Hitzaldiak 40 minutuz luzatuko dira, gehienez ere. Hitzaldi bakoitzaren ondoren, 20 minutuko tarte egongo da solaserako.
  - Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Zuzenbide Konstituzionalaren eta Pentsamenduaren eta Mugimendu Sozial eta Politikoen Historiaren Sailak, eta Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren, Nazioarteko Harremanen eta Zuzenbidearen Historiaren Sailak Arartekoaren jardunaldietan lagundu dute. Jardunaldi hauetan izan direla egiaztatzen duten ikasleek kredituak lortuko dituzte.
- Informazio gehiago: [www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)